



AIARAKO UDALAK 1.600 SINADURA BAINO GEHIAGO BILDU DITU UDALERRIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDE

Gaur goizean entregatu ditu Araba Busa Luiaondon sartzea eskatzeko 844 sinadura eta Renfeko *Civis* trenak Aiarara heltzeko 800 sinadura

AIARA 2025.03.20. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundian erregistratu ditu Mugikortasunaren harira jasotako biztanleen 844 sinadurak. Honako hau da eskatzen dena, L-15 eta L-16 lineetako autobusak Luiaondo paretik pasatzen direnean, Luiaondon sartu eta geldialdiak egiteko:

- A-15 linea, Gasteiz-Laudio-Gasteiz, Laudiorako bidean beti eskatu behar da geldialdia aldez aurretik. Ordutegi batzuetan soilik egin daiteke. Luiaondon balizko bezeroek ez dute jakiterik autobus horiek geldituko diren.
- Laudiotik Gasteizera paretik pasatzen diren 21 autobusetatik batzuk soilik sartzen dira Luiaondon.
- Okondotik Artziniegatik Okondora doan L-16 lineari dagokionez, ez du geldialdirik egiten Luiaondon. Horrela, Luiaondo isolaturik geratzen da Aiarako gainontzeko herrietatik, autobus zerbitzuari dagokionez.

Pruden Otegi Aiarako Alkateak adierazi duen moduan, "Udalaren aldetik, Luiaondotik igarotzen diren L-15 eta L-16 lineetako autobus guztiak herrian sartzea eta horretarako prestatutako bi gerezalekutan gutxienez gelditzea eskatzen dugu."

Tren maiztasun duin bat

Trenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzara bideratu ditu 800 sinadura C3 linea, Urduña eta Abando elkartzen dituen, Aiaran maiztasun duin batekin gelditzeko eskatuz.

Luiaondon geltokia duten trenetan, ordu erdiro tren baten irizpidea mantentzen da, goizeko 7ko orduko eremuan izan ezik. Goizeko 7:30etako trena, Aiaran lanera edo ikasketetara joateko erabiltzaileek hartzen zutena, kendu egin da, eta horrek protestak eragin ditu, beharrezko ordutzat jotzen baita. Gauza bera gertatu da 8:30etako trenarekin.

Civis tren batek ere ez du geldialdirik egiten Luiaondon. Dirudenez, 7:30eko trenaren desagerpenaren arrazoia ordu horretan Amurriotik Abandorako bidean irteten den *Civis* bat da. Udala RENFErekin harremanetan jarri ondoren, erantzun digute *Civis*-ek Luiaondon geldialdirik ez egitearen arrazoia dela ez dela iristen horretarako behar den erabiltzaile-kopurura.

"Ez dakigu noiz egin den Luiaondoko geltokian trena hartzen duten erabiltzaileen kopuruaren azterketa. C3 linearen ordutegiak eta maiztasunak atzerapen eta bertan behera uzte ugari izan ditu pandemiaren geroztik, eta Aiarako geltokian trena hartzen zutenak autoz joaten ziren Aretara hura hartzera; izan ere, maiztasuna handiagoa zen geltoki horretan, eta ezin zuten arriskatu



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

okupazioetara berandu iristera. Beraz, ez dakigu egindako azterlana benetako beharretan oinarrituta egin den”, azaldu du Otegik.

Eskaera hauetara Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ahalik eta azkarren erantzutea espero du Aiarako Udalak “Aiaralderako programatzen diren hobekuntzetatik ezin baita Aiarako udalerrria alde batera utzi”.



EL AYUNTAMIENTO DE AIARA RECOGE MÁS DE 1.600 FIRMAS A FAVOR DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE EN EL MUNICIPIO

Esta mañana ha entregado 844 firmas para solicitar la entrada del ArabaBus en Luiaondo y 800 para que los trenes *Civis* de Renfe lleguen a Aiara

AIARA 2025.03.20. El Ayuntamiento de Aiara ha registrado en la Diputación Foral de Araba las 844 firmas de vecinas y vecinos recogidas con motivo de Movilidad del municipio. Se solicita que cuando los autobuses de las líneas L-15 y L-16 pasen junto a Luiaondo entren y hagan paradas en Luiaondo:

- En la línea L-15 Vitoria-Laudio-Vitoria-Gasteiz, siempre hay que solicitar parada previa en el trayecto a Laudio. Sólo se puede realizar esta solicitud en 10 de los 24 autobuses que pasan junto al pueblo.
- De los 21 autobuses que pasan de Laudio a Vitoria-Gasteiz por la zona, sólo 6 acceden a Luiaondo.
- La línea L-16 de Okondo a Okondo por Artziniega no realiza parada en Luiaondo. Así, Luiaondo queda aislada del resto de localidades de Aiara, en lo que respecta al servicio de autobuses.

Tal y como ha señalado el Alcalde de Aiara, Pruden Otegi, "desde el Ayuntamiento solicitamos que todos los autobuses de las líneas L-15 y L-16 que pasan por Luiaondo entren en la localidad y paren al menos en dos paradas habilitadas al efecto."

Una frecuencia de tren digna

En cuanto al tren, se han entregado al Gobierno Vasco 800 firmas solicitando que la línea C3, que une Urduña y Abando, pare en Aiara con una frecuencia digna.

En los trenes con parada en Luiaondo, se mantiene el criterio de un tren cada media hora, salvo en la zona de la 7 de la mañana. El tren de las 7:30 de la mañana, que en Ayala cogían los usuarios para ir al trabajo o a estudiar, ha sido suprimido, lo que ha provocado protestas al considerarse una hora necesaria. Lo mismo ha ocurrido con el tren de las 8:30 horas.

Ningún tren *Civis* hace escala en Luiaondo. Al parecer, la causa de la desaparición del tren de las 7:30 horas es un *Civis* que sale a esa hora de Amurrio en dirección a Abando.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Una vez que el Ayuntamiento se ha puesto en contacto con Renfe, nos contestan que la razón de que los trenes *Civis* no hagan escala en Luiaondo es que no llega al número de usuarios necesario para ello.

"No sabemos cuándo se ha hecho el análisis del número de usuarios que cogen el tren en la estación de Luiaondo. El horario y la frecuencia de la línea C3 ha sufrido numerosos retrasos y cancelaciones desde la pandemia y quienes cogían el tren en la estación de Aiara acudían en coche a Areta para cogerlo, ya que la frecuencia era mayor en esta estación y no podían arriesgarse a llegar tarde a sus ocupaciones. Por lo tanto, no sabemos si el estudio realizado se ha realizado en base a necesidades reales", ha explicado Otegi.

A estas peticiones el Ayuntamiento de Ayala espera que la Diputación y el Gobierno Vasco respondan con la mayor celeridad posible porque "de las mejoras que se programan para Aiaraldea no se puede prescindir del municipio de Aiara".